

PUBLICACIONES

Erroibarko eta Esteribarko Hiztegia

Orreaga Ibarra

Iruñea: Nafarroako Gobernu & Euskaltzaindia, 2007, 280 or.

Orreaga Ibarra irakaslea lan handia egiten ari da Nafarroako euskal hizkerak jasotzeko eta aztertzeko ahaleginean. 1995ean argitaratu zuen *Ultzamako hizkera. Inguruko euskalkie-kiko harremanak* liburua eta, bertan, Basaburua Nagusia, Imotz, Ultzama, Atetz, Anue eta Lantz izan zituen aztergai. Hizkera horiek guztiok multzo berean sartu zituen Bonapartek, denak berdintzat hartuta, baina gaur egun behinik behin, gauzak ez direla horrela erakutsi zuen Ibarrek: Basaburu Nagusia eta Imotz besteengandik bereziak direla. Niri neuri, gainera, azken mendeotan gertatzen ari den aldakuntzaz ohartzeko balio izan zidan; Gipuzkoako euskarak Nafarroako mendebalean izan duen zabal-kundeaz jabetzeko.

Azkenaldi honetan, berriz, Esteribarko eta Erroibarko hizkerak izan ditu Ibarrek ikergai, eta jardun horrek beste gertakari batekin konturatzeko balio izan digu: Bonapartek Nafarroan bereizi zituen euskalki biak –iparraldeko goi-nafarra eta hegoaldeko goi-nafarra– oso oinarri ahulekoak direla. Izan ere, Anuetik Esteribarre-ra, esate baterako, ez da ikusten euskalki bi bereizteko arrazoi nahikoa. Orreaga Ibarra bera da, ziurrenera,

gauza horiek neurtzeko pertsona egokia, baina nire iritzian, behintzat, Bonapartek ‘hegoaldeko goi-nafarra’ deitu zuen euskalkia euskara nafarraren ‘sortaldeko azpieuskalkia’ besterik ez da.

Uste horren zuzentasuna edo useltasuna erabaki ahal izateko beste aukera bat eskaini digu Orreaga Ibarrek: *Erroibarko eta Esteribarko Hiztegia*. Egiari zor, hiztegia baino gehiago dago liburu horretan. Eskualde hartako hizkeraren ahozko eta idatzizko lekukotasunak bildu dira liburuaren bigarren zatian: XIX eta XX. mendeetako Erroko sermoiak, Damaso Intzak jasotako esaera zaharrak, Perpetua Saraguetak etnografia gaiez argitaratutako artikulak eta oraingo hitzuneekin egindako elkarrizketen transkripzioak. Eta une egokian dator Ibarraren bilduma, hiltorian dagoelako alderdi hartako euskara. Lintzoainen, Urnizan, Eugin, Iragin, Mezkitzen eta Zilbetin gelditzen dira bertako euskaldun apurrak eta denak dira adin handikoak. Horiek itzaltzen direnean itzaliko da euskalkia.

Ibarraren lanak daukan balioa nabarmendu ondoren, liburua egituretzeko moduz egin nahi ditut zenbait hitz.

Hiztegiaren denetariko hitzak bildu dira: gaur egun bizirik daudenak, bertako izkribu zaharretan ageri direnak, eta alderdi hartako euskara iker-tzen aritu direnek jaso dituztenak: Azkuek eta Intzak, gehienbat. Jokabi-de zuzena iruditzen zait hitz denak biltzea, baina zalantza sortzen da zenbait hitzen eta egituraren benetakotasunaz eta, jakina, hiztegiaren erantzukizuna da zalantza horiek argitzea. Esate baterako, Azkuek Esteribarren jasotako *agian* 'beharbada' adierarekin, *azil* 'azaro', *estakuru* 'aitzakia', *ihortziri* 'ostotsa' benetan dira hangoak? Egoki etorriko litzaiguke hitzok biltzeaz gainera, euren berri gaur egungo hitzunei galdetu izan balitzaie.

Egoki etorriko litzaiguke, era berean, Erroko sermoietan ageri diren *eurteki* 'jaurti' eta *xukatu* hitzak eta *yakinsun* 'jakintsu' aldaera gaur egungo hitzunei ezagutzen eta onartzen ote dituzten egiaztatzea.

Mezkiriztarra zen Perpetua Saraguetan, baina ez zait iruditzen hark erabilitako hitz eta egitura guztiak Mezkirizkoak direnik. Merezi zuen, esate baterako, haren izkribuetatik atera diren *alborengo* 'birieta', *antzi* 'ahantzi', *garagarril* 'ekaina', *iruzurtu* 'iruzur egin', *izurri* edo *kabala* 'azienda' benetan hangoak ote diren argitzea. Perpetua Saraguetaren izkribuetan *-eino* morfema ere agertzen da: *egoten dire denbora ona deño; alargune bizi deño* (s.v. *-ño*), eta komeni zen atzizki horren lekukotasunaz gaur egungo hitzunei galdetzea.

Bada beste atzizki bat gaur egun boladan dagoena: *-tear*. Sarri entzuten eta irakurtzen ditugu *bukatzeaz*, *erortzeaz*, *etortzeaz*, *hiltzeaz* tankera-koak, baina nik neuk, behinik behin, ez dut atzizki hori euskaldunen solasean sekula aditu. Hiztegi honetan ere bada horren adibidea (s.v. *-ar*), baina bakarra da, eta ez da zehazten

bildu den herria. Susmopekotzat har liteke, beraz.

Gauza da hiztegi osoan zehar gelditu direla tankerako horretako atzizkiak behar bezala argitu gabe. Esate baterako, *amatxi* eta *amiña* biak erabiltzen direla esaten da, baina biak erabiltzen ote dira neurri berean, sinonimo hutsak ote dira?

Aldaera zenbait ikusita ere zalantza sortzen da: *aitzin* eta *altzin*, *alfer* eta *auffer*, *belarri* eta *bearri*, *bezala* eta *bezela*, *burni* eta *burdina*, *dantza* eta *yantza*, *eraman* eta *ereman*, *guti* eta *gutxi*, *guzti* eta *guzi*, *izigarri* eta *izugarri*, *negar* eta *nigar*, *topatu* eta *opatu*, *zapata* eta *zapeta*... denetarik agertzen da. Beharbada denetarik erabiltzen da, baina ondo legoke, zalantzak uxatze alde, hiztegiak gauza horiek argitu izan balitu.

Zalantzak sortzen ditu, era berean, instrumental kasuko *-z* atzizkiak. Horixe agertzen da ia beti, eta oso noizbehinka baizik ez euskara nafarraren bereizgarria den *-s*: *gabas*, *gaitzes*... Benetan hain urria da *-s* atzizkia alderdi hartako euskaran?

Azentuarekin ere zorrotzago jakatu behar zela iruditzen zait. Gehienetan ez dira azentuak jarri eta beste batzuetan bai. Esate baterako, *goiz meza*, *itsutu*, *kixkildu*, *nunbait*, *ola*... sarreretan azentu batzuk ezarri dira, baina gehienetan erabat falta dira.

Bestelakoan, hitzei euri begirata ere, zenbait ohar egin nahi nituzke. Tankera honetako hiztegiaren sari gertatzen dira ezustekoak. Esate baterako, urrunekotzat edo antzinkotzat dauzkagun hitzak eurretan aurkitzea. Hiztegi honi dagokionez, hain zuzen, mendebalekotzat dauzkagun *zarata* hitza aurkitzeak harritu nau; *zarata* eta *zaragata* aldaerak bildu dira. Era berean, mendebalekotzat dauzkagun *gura* hitzarekin osatutako *azkurealdi* ere badator.

Horiekin batera, *artxitero* hitza ere nabarmendu nahi nuke, 'eskulanetan trebea' esan nahi duena eta Ibarrak frantseseko *architecte* hitzetik ekartzen duena. Oso litekeena da *artxitero* eta *architecte* jatorri berekoak izatea, baina gauza da Urdiainen ere, Ipar Euskal Herriko mugatik urrun, hitz hori berori *-atxitero* itxurapean erabiltzen dela. Komeniko litzateke, beraz, hitz horrek Nafarroan barrena daukan hedadura aztertzea.

Nabarmentzekoa iruditzen zait, azkenik, *bider* hitzak daukan adiera: 'birritan, bi aldiz' esan nahi du alder-

di hartan. Hona hemen zenbait adibide: *bider o iru urtetaik; bider edo iru egunen buruen*.

Horiexek dira, laburbilduta, Ibarraren hiztegia irakurrita bururatu zaizkidan gogoetak, baina tankera horretako lan bat egiteak eskatzen duen denbora eta eramana, eta Esteribar eta Erroibarko hizkerek daukaten esangura berezia nahi nituzke gauza guztien gainetik nabarmendu, eta Orreaga Ibarrari eskertu.

Koldo Zuazo
Euskal Herriko Unibertsitatea

